

Intxaurrondo

Urtebete lagun eta bizikide

Irutxulo

J oan den uztailaren 2an Txara 1-eko Bizikidetz Unitate Berezien (BUB) inaugurazioaren lehen urte-muga bete zen.

Bizikidetz Unitate Bereziek zahar etxeetan edo zentro berezietan eskaintzen den bizimodu ereduaren alternatiba izan nahi dute. Txara 1-ean unitate bereziko hiru etxebizitza daude. Horietan hiru giza talde ezberdinetako 18 lagun bizi dira: laguntza behar duten adinduak- tartean Alzebimerrak jotako hainbat lagun-, elbarriatuak eta adimen urriko pertsonak.

Unitate horien helburu nagusia berezko bizilekua, zerbitzu eta harreman sistema sortzea da, bertan bizi direnek bizimodu autonomo eta lehiakorra egiteko aukera izan dezaten.

Etxebizitzok egitura txikia dute, pisu arrunt baten logikarekin aurrera eramaten dena. Zerikusi gutxi dute zahar etxeekin edo zentro bereziekin. Egitura txiki horrek erabilitzaileen beharrak betetzea errazten du, izan ere, pertso-



Txara 1-eko Bizikidetz Unitate Berezietan hainbat lagun bizi dira.

naren harremanak, pertsonaren bilakaera eta komunitate-arekiko inplikazioa dira funtzionamenduaren ardatz nagusiak.

Ekimen esperimentalak

UTE-UCA, etxebizitzok kudeatzen dituen enpresako kideek orain arteko jardunari buruzko balorazio ona egiten dute.

"Gurea ekimen esperimen-

tala da. Hala ere, aurtengo emaitzekin oso pozik gaude. Bai adinduen kasuan eta baita elbarritu eta adimen gutxikoen kasuan ere nabarmena da etxebizitza batean beste hainbat lagunekin egotea oso onuragarria dela gaixoentzat", adierazi digu Almudena Esteberena Intxaurrondoko BUB-etako arduradunak.

Unitate berezietan dauden pertsona guztiei bizimodu berriak aldaketa ugari ekarri


Almudena Esteberena:

"Etxebizitza batean beste hainbat lagunekin bizitzea onuragarria da gaixoentzat"


dizkie. Adinduak eta alzehimerrak jotako gaixoak beren familiekin bizi ziren etxebizitzotara iritsi aurretik. Elbarritu fisikoak, berriz, Matia Zahar Etxean eta adimen urriko pertsonak Uliazpi izeneko zentroan.

"Pertsona hauek bizitza normalagoa egin ahal izan dute. Ahal den neurrian egunero lanak gaixoen ardura dira. Horrek pertsona autonomoak izaten laguntzen du. Gainera gaixotasunak eragindako ahultzea mantsotzea lortzen da. Esperientzia oso ona izan da guztiontzat. Horren adierazle, familietatik jasotako esker ona", adierazi digu Almudenak.

**San Telmo
Goilarea**



Pintxoak, Kaxuelak,
Miniatuta Sukaldaritza
eta Platerekoa



Abuztuaren 31. kalea / 20003 DONOSTIA

PALMERA

**Berezitasuna:
NARRASTIAK ETA
PERTSIAR KATUAK**

Tel.: (943) 290968

Karmengo Andra Mariaren kalea 14
(Iruresoro plazarekin izkinan)

www.asilah.com/palmera DONOSTIA

Winkildegia MERTZERIA

- KORTSETERIA: DIM, CHANTELE, SIMONE PERELE, SELMARK, LITTLE KISS
- PIJAMAK: MASANA, AMETILLER, NOCTURNO
- LENTZERIA: BALMORAL, VANIA
- GALTZERDIAK: DIM, SILCA, PLATINO
- BARRUKO ERROPA: AVET, PUNTO BLANCO, DIM, SET (GIZON ETA EMAKUMEENTZAT)

Tel.: 943 472328 • AMEZKETA PLAZA (AMARA BERRI)

Balleneros boutique

Baleazaleak 10 . Tel.: 943-47 20 89. 20011 Donostia